

## ZIENTZI HIZKUNTZA IRAKASKUNTZAN: EUSKARA TEKNIKOAREN IZAERAZ, ITURBURUAZ ETA EGUNGO ERABILMODUAZ

Mikel Zalbide

---

### O. SARRERA

Eskolako euskara eta kalekoa, edo nahiago bada etxe-koa, ez dira gauza bera. Guraso euskaldun askok nekea du seme-alaben testu-liburuak irakurtzeko. Eta ez euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duen guraso-jendeak bakarrik: gutxi-asko alfabetaturik daudenek ere problemak izan ohi dituzte liburuek zer dioten ententitzeko. Zailtasun horien arrazoiak ez dira beti berberak: liburua euskara kaxkarrean idatzia egotea izan liteke, batzuetan, motiboa; aztergaia bera ez ezagutzea edo aspaldidanik ahaztu samarra izatea bestea; ikasmaila batzuetatik gorako testuetan maiztxo ageri ohi den idazkera trinko, beteegiak atzera eragiten du sarri, gainera, erakarri orde, ... Arrazoi bat edo beste dela medio, euskara diferente bat dela hori esango dizute askok: euskarahori ez dela beraiek erabiltzen dutena. Egia diote, neurri on batean: etxeko euskara bestelakoa izan ohi da, gehien-gehienetan.

Eskolan bertan ere euskara-modu bat baino gehiago erabili ohi da. Ikasleen adinak badu horretan zerikusia: etxeko hizkera-moldeetik ondotoz hurbilago egongo da normalean bospasei urteko neska-mutilek gelan entzuten eta irakurtzen dutena, eta aski urrunago unibertsitate alorrean irakasten dena. Asignaturak ere muga estuak ezartzen ditu batzuetan: badira jakintza-atalak ohizko hizkerabideaz erraz eta gozo azal daitezkeenak (azaldu behar dituen euskara erraz eta gozoan egiteko gai baldin bada noski), eta beste zenbait atal (zientzi-tekniken esparru formalizatuenak bereziki) nekez esplika litezke hizkuntz "tresneria" berezi batez baliatu gabe. Azken alor horretako azalpenak jaso behar dituztenek lehenetik prestaturik egon beharko dute, neurri batean behintzat, eskaintzen zaien hori zuzen jaso ahal izateko.

Azken alor hori da, hain zuzen, txosten honetan zertxobait landu nahi duguna: irakasmunduan erabiltzen den zientzi euskara edo, dagoeneko bere bidea egin samarrik duen esamolde bati eutsiz, irakaskuntzako *euskara tekniko*a. Askotan

besterik uste izan baliteke ere eskola munduan oro har, eta are unibertsitatean bertan, egiten den euskararen zati txiki bat (mintzajardun osoaren erdira nekez iritsiko den zatia) izan ohi da bete-betean *euskara tekniko* izenburupean sar dezakeguna. Jardun osoaren zati bat izan arren zati inportantea da, ordea: ikasketako kontzeptu eta definizioak, taxonomi sare eta teori oinarriak *euskara tekniko* horren bidez ematen dira sarri. Etxeko edo kaleko hizkera hutsez, horretaz bakarrik, baliatzen den irakas-sistema osaturik ez dugu Europa-alde honetan eza-gutzen; eta euskara ere, eskola mundura sartu den neurrian, antzeko bidetik dabil: ikasle-irakasleen arteko mintzajardunean, batez ere irakasleak arbetatik agertzen duen horretan eta adin batetik gorako ikasleentzako testuliburuek eskaintzen dutenean, *euskara tekniko* moduko bat bere bidea egiten ari da.

Lehendik bagenituen, jakina, mintzaera edo hizkera-molde desberdinak: euskalki bakoitzak bazituen eta baditu bereizgarri sendoak, han-hemengo euskaldunon jarduna elkarrengandik bereizten dutenak. Euskalki barruan ere diferentziak nabarmendu ohi dira, eskualde batetik bestera, Geografiazko banaketa da, funtsean, euskalki artekoa. Euskararen jatorrian, urruneko lehenaldian nolana ere, aurkitu behar dira euskalki-banaketaren motiboak eta oinarriak, Euskarak eta euskaldunek ibilitako bidearen oihartzun eta lekuko dira, batez ere, lekuan lekuko hizkera-moldeok.

Geografiazko banaketa horrek dialektoak ageri dituen moduan azter daitezke, bestalde, soziolektoak. Eskualde edo hiri berean jaio eta bizi diren hiztun guztiak ere ez dira, egin dezaketean eta egiten duten erregistro-maila dela-eta, mintzaera bakarrek: gizarte-egituraren gizabanakoek duten posizioak, sarri asko beraien ordurarteko heziketa-bideak eta kultur inguramenduak eraginin, arrasto nabarmenik utzi ohi du sarri gizabanako honen hizkuntzan.

Faktore horiek badute harremanik, xehe-xehe aztertzen hasita, euskara teknikoaren gaiarekin. Ez, ordea, harreman

zuzen eta erabatekorik. Hizkuntzen hirugarren bereizbide batek zuzenago eragiten du, izan ere, zientzi hizkuntzaren kontu honetan: lanbidez, jardueraz edo espezializazioz sortzen diren teknolektoetatik hurbilago dago, aurrekoetatik baino, euskara teknikoaren bereizitasun-oinarria. Jaiotako eskualdeak eta gizarteko bizimailak baino zuzenago eragiten du, kasu horretan, bakoitzaren lanbideak edo espezializazioak. Norbaitek esan dezake ordea, eta ez zaio arrazoi-puntarik falta, gaur eguneko lanbideak eta espezializazioak hain ugariak eta desberdinak izanik teknolekto asko daudekeela, ez bat: euskara tekniko asko genituzkeela hortaz eta, ondorioz, ezer ganorazkorik azaltzekotan teknolekto konkretu honetaz edo hartaz hitz egin beharko litzatekeela, ez guztiez batera. Hala da, neurri batean: terminologi kontuan, batez ere, espezialitate (edo, sarriago, azpiespezialitate eta are "eskola") bakoitzak bere kontzeptu-sare eta izendapen-sorta bereziak sortzera jo ohi du. Medikuek elkarri idazten dizkieten diagnosi-txostenak nekez ententitzen ditu profesio horretakoa ez denak; legelarien eta eskribauen mintzaerak edo idazkerak barne-kontsumorako eraturia dirudi askotan; informatika munduan zertxobait sartu ez denarentzat ilun gertatzen da, orobat, esparru horretan ari direnen mintzajarduna. Balirudike, beraz, matematikariek beren teknolektoa dutela, filosofoek berena, literatur kritikariek beren hizkera propioa, fisika nuklearra aztertzen dutenek beraiena eta abar: hots, zenbat espezialitate hainbat teknolekto daudela.

Norbaitek erants dezake, gainera, espezialitate-alor bakoitzean sakontasun-maila desberdinak daudela eta mailak, ezinbestean, teknolektoaren zenbatekoa eta nolakoa mugatzen duela: ez dela berdina, alegia, matematika sei urteko eskolaumeei erakustea, 10 urteko neska-mutilei, 14 urteko ikasleei edo 19 urteko unibertsitarii; matematika-irakaslearen hizkuntza teknikoak jarduna ez dela berdina, orobat, ikasleei esplikazio praktikoa ematen ari denean, ikastetxeko bere mintegian maisulagunekin urteko programazioaz hizketan ari denean, bere asgnaturarako ikasliburu bat prestatzerakoan edo matematika-kongresu batean txosten bat aurkezterakoan.

Egia da hori dena. Euskara tekniko bakar batez hitz egitea gauzak sinplifikatzea da, neurri on batean. Ezinezkoa ez da ordea, eta alfer-lana ere ez. Gureak baino dibertsifikazio-maila handiagoa duten hizkuntzek ere, nahiz alorrez alorreko aldaera hori begien bistan izan, ez diote hizkuntza (mintzaera zein idazmolde) teknikoari bere izatea ukatzen. Axaleko mila ñabardura eta bereizbide horien azpian, enbor beraren giharra aurkitzen dute. Gurean ere posible da, hurbilketa moduan baizik izango ez bada ere, jakintza-alor desberdinetako irakasleen eta gainerako profesionalen artean zabalitzen ari diren ezaugarri amankomun horiek zehaztea. Are gehiago: funtsaren funtsean antz handiak ditu euskara tekniko horrek auzo-hizkuntza nagusien (frantses-gaztelanien, ingelesaren, alemanaren,...) aldaera formal-teknifikatuekin. Koldo Mitxelena Arantzazukoan, B.L. Whorf-en "standard average European" aipatzerakoan, esandakoak badu, hizkuntza teknikoaren esparruan ere, bere balio-indarra.

Irakasmunduko euskara teknikoak erdara teknikoekin amankomun dituen ezaugarriak biltzen saiatuko gara beraz, lehenengo saio batean. Auzo-erdara nagusien pare-pareko egoeran ez gaude ordea, inola ere: euskararen mendez mendeko bilakaerak, bere hedadura urriak eta hemengo mintzajardunaren gaur eguneko gizarte-antolakerak bereizitasun nabarmenak sortzen ditu, lehenik eta behin; euskararen izaera bereziak ere, hizkuntza indoeuroparretatik bereizten gaituen barne-egiturak alegia, aparteak muga-baldintzak ezartzen ditu eta horiek denak ahaztea ez da komeni. Besteekin amankomun ditugun ezaugarrien ondoan gure-gureak ditugun

marka-seinaleak ere azaltzea komeniko da beraz. Banan-banan azalduko ditugu, ondoren, batzuek eta besteak.

## I. BESTE HIZKUNTZEKIN AMANKOMUN DITUEN EZAUGARRIAK


Euskara tekniko eta terminologia gauza bera direla pentsatzen da askotan, zuzen-zuzen horrela aitortzen ez bada ere. Eta ez terminologia oro har, *izen* kategoriako termino teknikoak baizik. "Zientzi-tekniketako hizkuntza" entzun orduko. izan ere, berehala datozkigu burura *espektrograma, fitologia, magnetoskopia, polimorfismo, brakizefalo, diakritiko, isoentropiko, antropologia, demografia, estereofonia, etnografia, filogenesi, isoglosa, dialektologia* eta antzeko kultur hitz teknikoak. Biak ez dira, ordea, gauza bera: zientzi-tekniketako euskararen, gure hizkuntza teknikoaren, ezaugarriak ez dira inola ere hitzetara, are gutxiago kultur hitz teknikoetara, mugatzen. Hori baino esparru zabalagoa estaltzen du irakasmunduko hizkuntza teknikoak, aurrerago ikusiko dugunez.

### I.1. Terminologiaren erreinu

Egia da ordea, guztiarekin ere, teknolekto horretaz hitz egiten denean terminologi esparruak leku handia hartzen duela sarri. Ez, noski, kasualitatez: hizkuntza teknikoaren ezaugarri nagusi bat berriazko terminologia oparoen jabe izatea da: kimikako terminologia, abiazioakoa, ordenadoreen mundukoa, administrazio alorrekoa, ... aski zabalak dira, eta aski bereziak.

Irakasmunduko euskara teknikoaren ezaugarri nagusietariko bat ere horixe da: eguneroko bizian inoiz gutxitan erabiltzen diren hitzak erabiltzen ditu barra-barra. Beste lanbide eta espezialitateetan baino nabarmenagoa da joera hau gainera, irakasmunduan: gizarte-bizitzako jakintza-gai eta lanbide askotarako prestaera-gune denez, iturri guztietariko hitz teknikoak biltzen dira bertan.

Kategoria gramatikalari dagokionez izenak dira, gehienetan, termino horiek. Edota, beste hainbatetan, izenetik eratorritako aditz, adjektibo erreferentzial edo antzekoak. Kultur hitzekin gertatzen da hori sarriekin, horiekin bakarrik gertatzen ez bada ere. Inoiz aditzera eman izan denez, ondoko taulak adierazten du izen-oinarriko kultur erroen eta beraien eratorpen-bidearen nondik norako nagusia:



Euskara	Gaztelaria	Frantsesa	Ingelesa	Alemana	Italianoa
isentropi(ko) endosmosi kromatografi(ko) metazentro	isentrópico endósmosis cromatográfico metacentro	isentrope endosmose chromatographique métacentre	isentropic endosmosis chromatographic metacenter US metacentre GB	isentropisch Endosmose chromatographisch Metazentrum	isentrópico endosmosi cromatografico metacentro
espektograma termostato abzisa zibotaxi	espectrograma termostato ab(s)cisa cibotaxis	spectrogramme thermostat abscisse cybotaxie	spectrogram thermostat abscissa cybotaxis	Spektrogramm Thermostat Abszisse cybotaktischer Zustand	spetrogramma termostato ascissa cibotassi

Hauek denak emanak etorri ohi zaizkigu, ordea. Maileguzko hitzak oso ugariak ditugu, ondorioz, zientzi-tekniken alorreko euskaran. Hartzaille huts, edo ia huts, da gaur eguneko euskara teknikoak kultur hitzen moldatze kontuan: urrunsko gelditu zaizkigu, *berebil* edo *urrutizkin* moduko arrastorik falta ez bada ere, mende-hasieran eta geroxeago euskal "eredu"-z sortutako *ludisti* (*geologia*), *neurritzi* (*geometria*), *idaztelerti* (*bibliografia*), *begi-zarkul* (*hipermetrope*) edo *ur-indarrizti* (*hidrodinamika*) modukoak. Gaur eguneko liburu eta hiztegien arabera, irakasmunduko euskara teknikoak oso neurri zabalean bereganatu ditu Europa-alde honetako hizkuntza landu nagusietan hain ugari eta amankomunak diren kultur hitz grekolatinoak. (Ikus goiko konparazio-taula).

Horrek ez du esan nahi, halere, euskara kultur hitz berriez hornitzeko kontu horiek zeharo finkaturik daudenik: azken hogeita hamar bat urte honetako joera nagusia hori dela bistan dago, eta grafia aldetik esparru horretan lortu den bateratze-maila aski nabarmena dela ere bai. Ohargarria da, orobat, hainbat jakintza-esparrutan berezko hitz-ondaretik abiatuz gertatzen ari dena: terminologi esparru osatuak eratzen ari dira horrelakoetan, eta urte gutxiren buruan liburu-idazkietara hedatzen. Euskara tekniko hori darabilten ikasle-irakasleek hain hitz-multzo zabalok ohizko hitz-altxorrean nola txertatzen dituzten da, aitzitik, azterlan sendoagorik eskertuko lukeena.

Nolanahi ere den, gure gurasoentzat kasik esistitzen ez ziren hitz-zerrenda osoak ari zaizkigu, urte gutxiren buruan, euskaldun (adin batetik beherako euskaldun) gehienengana zabaltzen: matematikako eragiketak, kasu ezagunena baizik ez aipatzearren, urte luzez hiztegiaren batean edo bestean eta mende-hasierako ikasliburu bakanen batean gorde egon ondoren milaka euskaldun gazteren hitz-altxorrean txertatzen ari dira: *batuketa* eta *zatiketa*, *kenkizun* eta *kentzaille*, *trukatzellege* eta *biderkadura* gazte horietatik aski hitz ezagunak dira gaur egun.

### 1.2. Konnotaziozko neutraltasuna

Adibide ezagunetara joaz, har ditzagun antzekoak izan arren ondo bereziak diren gaztelaniazko *sacamuélas*, *dentista* eta *odontólogo*. Antzekoa izan dezaketen denotazioaren ondoan aski konnotazio desberdinez kargaturik daude hirurak. Lehenengoa gaitzespen-kutsuz kargatuagorik dago, gainera, besteak baino.

Zientzi-tekniketako hizkuntzek, konnotazio aldetik neutral izatera jo ohi dute; balioespen-kutsutik libratu nahia ageri dute, alegia. Zientziaren berenezko ezaugarria da balioespen-kutsutik (gaitzespen- zein gorespen-kargatik) libratu nahi hori, eta zientzi jakitearen adierazpide den hizkera teknikoak kontu handia izan ohi du horretan. Nahi izatea eta lortzea bi gauza dira, halere, eta bistan da hizkera teknikoak bera, segun nork eta zein situaziotan erabili, konnotazio-iturri bihurtu daitekeela.

Batak ez du bestea kentzen, ordea: zeharbidez egin daitkeen erabilera markatu hori gora-behera, balioespen-kutsu-

rik gabeko azalpenak izan ohi ditu normalean hizkera teknikoak. Bestelako ondorioz ere badu horrek: hizkuntza hotza, inpersonala izan ohi da gehienetan zientzi hizkera. Autorearen beraren aurreiritziak baztertera jo ohi du gehienetan: joan den mendean *liberalismo* itzultzen hasi eta *liberalkeriya* asmatu zuenak beraz, edota geroztik *evolucionismo* esateko *darbinkeria* atera zuenak, hizkuntzaren beste zenbait dimentsio (mintzaira orenen atxikimendu- eta aiherkunde-inda-rra, besteak beste) gogoanago izan zituzten noski hoztasun eta neutraltasun-kontuak baino.

Balorazio-kutsurik gabeko izen-emate hori, gainera, aski loturik dago ondoko puntuan aipatuko den taxonomi gogo edo zaletasunarekin.

### 1.3. Izen-izanen arteko biunibokotasuna

Munduaren eta pentsakizunen azalpen taxonomizatua ematera jo ohi dute, ahaleginean, zientzia gehienek. Linneok landare-munduan eginikakoa hartu ohi da, normalean, jokabide horren eredutzat. Botanikaren eta, oro har, natur zientzien alorrean hain nabarmena den fenomeno horrek badu ordea, beste hainbat esparrutan ere, parekide sendorik. Taxonomi nahiak, berriz, esanahiaren eta adierazlearen artean biunibokotasun-harremanez jokatzera bultzatzen du. Adiera bakarrek hitzak ugariagoak dira zientzi-tekniken esparruan, ondorioz, bizibide arruntei dagozkienetan baino. Euskara teknikoan ere halatsu gertatzen da: bertako hitz bereziak hitz arrunt gehienak baino monosemikoagoak dira. Ilbilak eta "eskola" desberdinen joerak adierabakartasun hori apurtzera jotzen badute ere, monosemikoagoak dira oro har *alomorfo*, *galaktoforo*, *isoentalpiko*, *trukatzellege* edo *gogortasun-gradu*, zein bere esparruan, hiztegi arrunteko elementu lexikal gehienak baino.

Polisemia gutxitzeaz gainera besterik ere egiten du, askotan, termino teknikoak: sinonimoak saihestera jo ohi du gehienetan. Bi fenomeno horiek batera agertzen diren neurrian, izen-izanen arteko biunibokotasuna lortzen ere dela esan daiteke. Taxonomiazko pentsabide horrek besterik ere ekarri ohi du sarri berekin: hierarkiazko egituraren berri emango duten hiperonimoak sortzera jo ohi da, batetik, zientzi hizkuntzan; eta, bestetik, antonimoak sortu ohi dira elkarren aurkako sailkapen-elementuen berri emateko. Horrelakoak ditugu, urrutirago gabe, *eragiketa* hitza *batuketa*, *kenketa*, *biderkaketa* eta *zatiketa*-ren hiperonimo gisa eta, elkarren aurkako adierazleei dagokienez, gero eta usuago ikusten diren *bateragarri(tasun)/baieraekin(tasun)* edo *organiko/ez-organiko* moduko antonimoak.

Taxonomi zaletasun horrek badu, bidenabar, abstrakziozko kontzeptu-lanketarako joerarik.

### 1.4. Abstrakzio-lanketa

*Ardatz-a* elementu materiala da berez: zurez edo metalez egina izango da, segun zertarako prestatua izan, baina

begiek ikusi eta eskuek oratu egin dezakete. Behinolako irulearentzat pieza konkretua, hartu eta besapean eraman daitekeena, izana da ardatza. Besapean nekez eramango badira ere irulearena bezain konkretu-materialak dira orain ere gurdiaren ardatza, Legazpi ondoko burdinolako gabi-ardatza edo tola-ko ardatza. Besterik gertatzen da, aldiz, zientzi alorreko *ardatz-ekin*: abstrazio-lanketaren fruitu dira, lehenik eta behin, simetri *ardatz*, *biraketa-ardatz* eta antzekoak. Irudikatu egin daitezke hauek, noski, paperean lerro bat edo puntu bat markatuz. Ez dira, ordea, papereko lerro edo puntu hori. Elementu abstraktua da, ezer izatekoetan, simetri *ardatz-eko* edo *biraketa-ardatz-eko* ardatz hori.

Sarri gertatzen da hau zientzi hizkuntzan: *garapen-maila* kontzeptu abstraktua da noski, alde zurretiko definizio ageri baten emaitza; antzekoak ditugu *talde-dinamika*, *faktore-analisi*, *eremu-teoria* edo *adimen-koefiziente modukoak*. Gogoeta-lanaren fruitu eta gogoeta-lanerako lehengai dira, sarritan, honelako hitz(arte)ak.

Abstrakzio-lanketa ez da inola ere, ez gure hizkuntzan eta ez bestetan, zientzi alorreko jardunaren berezitasun eskusiboa. Egia da ordea, guztiarekin ere, aukera handiak ematen dituela horretarako. Eta antzeman egiten da hori, hizkuntza teknikoek darabiltzaten hainbat eta hainbat adierazpidedan.

### 1.5. Kanpoaldea. Mugikortasun handia

Hizkuntzaren hitz-altxorak badu bere muina, bere erdigune edo barrualdea; eta baditu, putzura botatako harriak erorgunearen jirabueltan zirkunferentzia zentrokideak sortzen dituen moduan, muin horretarik gero eta urrunago dauden esparru-atalak ere. Hizkuntzaren oinarritzko hiztegia osatzen duten elementuak, edozein hiztunek ulertu ohi dituen eta gehienok ere sarri samar erabiltzen ditugun hitzak, erdigune edo muin horretan egon ohi dira normalean. Zientzi hitz tekniko gehienak ez dira sail horretakoak: ez ditu edozein hiztunek erabiltzen; are gutxiago maiztasun handiz. Hitzun batzuek bai, eta maiz asko gainera haien beharrea suertatzean; baina hitzun batzuek bakarrik, eta momentu jakinetan. Prestasun handikoak dira errealitatearen edo gogoeta-lanaren esparru batzuk aipatzerakoan; baina ez dira maiztasun handiko edo oinarritzko hitzak, hitz-altxoraren barrualdeko muin edo erdigunea osatzen dutenak.

Irizpide honek baditu noski, gainerakoek bezala, bere mugak eta salbuespenak: sortu zirenean hitz tekniko-teknikoak ziren, dudarik gabe, *butano* edo *aspirina*; *heptano* edo *piridoxina* bezain tekniko, eta beraz haiek bezalatsu hitz-altxoraren kanpo-azalekoak. Gaur ezin esan liteke, aldiz, *butano* eta *aspirina* modukoak hitz tekniko hutsak direnik: hitz-altxoraren muin-muina iritsi ez badira ere, aski barruan ditugu jadanik: zein euskaldunek ez ditu ezagutzen eta erabiltzen? Egia da halere, bere batezbestekoan, hitz teknikoek buruz gorago esandakoa: hitz-altxoraren kanpoaldeko elementuak dira sarrienik, ez bere muin-muinekoak.

Hitz teknikoek badute, gainera, kanpo-azalekoak izate horrekin lotuta dagoen beste ezaugarri bat: mugikorak dira oro har. Muineko hitz gehienak aspaldi batean sortuak diren eta orain ere bizi-bizirik dauzkagun bezala, hitz tekniko asko berri samarrak dira sorreraz, eta bizi laburrekoak hainbatetan: etengabe sortzen eta ugaltzen ari dira horrelako hitzak, askotxo aldatzen dira denbora laburrean, eta horietariko hainbat azkar zaharkitzen. Mugikortasun handiko esparrua da, beste hitzetan esanik, jakintza-alor eta espezialitate askotako hiztegi teknikoak. Teknologi berrikuntzaren beraren ziztu biziak eragiten du, abiazio-munduan edo informatikan kasu, mugikorta-

sun hori. Bestelako arrazoirik ere izan ohi da, ordea, tartean: gramatikaren azalpideetan adibidez, berdin du euskaraz edo erdaraz ari, gure ikastetxeetako hiztegi teknikoak azken hogeitertean bizi izan duen eguneratzea eta aldaketa ez dira teknologi berrikuntzaren ondorio; teknika-alor askotan bezain mugikortasun handikoak bai, ordea.


### 1.6. Lexiko-berrikuntzarako baliabide nagusien erabilera sistematizatua

Aurrerago heldu beharko diogu berriro gai honi, standardizazio- eta esperimendu-kontuak aipatzerakoan. Beste hizkuntza landuetan gertatzen denaz gainera bai baitago egungo euskara teknikoan, irakasmunduan zein handik kanpora dagokeenean, sistematizazio horren oinatz nabarmenik. Auzo-hizkuntza nagusiekin amankomun dugun ezaugarriaz jardun nahi dugu hemen halere.

Hiztegia etengabe berrituz doa, jakina, edozein hizkuntza bizitan. Gurean ere bai, beraz. Esan ere esan dugu beste esparruetan baino ziztu biziagoan aldatzen direla hitzak edo adierak teknolekto berezituotan. Zaharberitze horren zenbait mekanismo azaldu nahi da hemen.

Hitz-eraketazko sorbideen erabilera sistematizatua izan ohi da, sarri asko, lexiko-berrikuntzarako bidea. Hots, hizkuntza orok hitz edo hitzarte berriak berekabuz eratzeko dituen lanabesez arauzko moldean baliatzea. Eratorpen-bidea batetik, eta hitz-elkarketa bestetik, maiz erabiltzen dira hortaz euskara teknikoan. Baita berrezarpen lexikala eta zabalkuntza semantikoa ere, ordea: hitz-eraketaz gainera esanahiaren aldetiko berrikuntzarik ere ez da, izan ere, falta izaten. Labor-labor azalduko ditugu ondoren sorbide desberdinok.

Demagun *bide* hitza eta, Azkueren hiztegiaren zein OEHra begiraturaz, horren eratorpen gisa agertzen den *bideratu* aditza. Gaur eguneko hizkera teknikoan, iturburu horretatik abiatuz eta eratorpen-bideaz baliatuz, era honetako elementu berriak erabili ohi dira:



Azken elementua beste batekin elkartuz *bideragarritasun-plan*, *bideragarritasun-maila* modukorik ere sortzen da, han-hemen gero eta maizago ikus daitekeenez. Erdararen eragina eraikuntza hauetan norainokoa den aurrerago aipatuko da. Oraingoz aski dugu eratorpen-bideok hizkera teknikoan aski era sistematikoan lantzen direla adieraztearekin.

Hitz-elkarketaz beste horrenbeste esan daiteke. Esparru gutxi izango da euskal mintzaeretan, hizkuntza teknikoaren alorrean bezainbat hitz-elkarte berri sortzen dutenik: *ulermen-mila*, *murgiltze-metodo*, *lanbide-heziketa*, *barne-tentsio*, *datu-base*, *sistema-programatzaile*, *ingurune-baldintza*, *bektore-batuketa*, *aditz-joko*, *galde-ikur*, *ziurtagiri*, *iritzi-askatasun*, *kalte-ordain*, *zerga-biltegi*, *mikroegitura*, .... amaierarik gabeko zerrenda atera liteke denbora gutxian, eskola-kutsuko liburuetara hurbilduz gero. Ondoko puntuan emango dira eramolde horren adibideak, eta hemen ez gara beraz xehe-tasunetan sartuko.

Berrezarpen lexikala eta zabalkuntza semantikoa ere, esan berri dugunez, oparo erabiltzen dira hizkuntza teknikoan: ez justu-justu hitz berriak eratzeko, baina bai adiera berriak sortzeko. Esanahiaren alorreko berrikuntza horiek, normalean, euskaraz nola esan ez dakigun erdal hitz baten edo, maizago, adiera “berri” baten euskal ordaina emateko erabih ohi dira. *Aurrezki-kutxa* sortu zuenak adiera berria erantsi zion, bistan denez, ohizko kutxa-ri: *caja de ahorros*, *caisse d'épargne* edo *Sparkasse* sortu zutenek egindako zabalkuntza semantiko berbera egin zuen halakok euskal alorrean. Beste hainbat egin dute *irauli* hitzetik abiatuz *iraultza* elementua *Frantziako iraultza*, *industri iraultza* eta antzekoetan darabilten histori irakasleek. Zabalkuntza semantikoa eta kalko semantikoa elkarren eskutik joan ohi dira sarri, interferentzi kontuan emaille baino hartzaileago ditugun gurea bezain eremu urriko hizkuntzetan Interferentziaren ondorio ere bada, izatez, sorbide hau.

Besterik da, azkenik, berrezarpen lexikala: irakasmunduko euskara teknikoan gutxitan ikusiko duzu *atraso* hitza eta sarri *atzerapen*, gutxitan *borratu* eta maiz *ezabatu*, gutxitan *fletxa* eta askotan *gezi*. Kaleko euskaraz maiz asko *juzgradu*, *kornertziante*, *plazo* edo *zinturoi* direnak *epalegi*, *merkatari*, *epe* edo *uhal* dira ikasliburu gehienetan eta irakasle askoren ezpain-lumetan. “Cultivation” faseko emaitza argia da zientzi hizkuntza, inon argirik bada. Eta, ondorioz, euskaldun burujantzi landuen arteko onarpen-filtroak zuzen-zuzenean eragin ohi du hizkera-molde horretan. Askotan besterik esaten bada ere, garbizaletasuna ez da Urliak edo Sendiak behinola sortu eta aspaldi samar bazterturik dugun bidegabezko ohitura: guztiok gara garbizale, neurri batean edo bestean; irakasmunduko profesionalak ere bai. Besterik da, jakina, gutako bakoitza zer neurritan den garbizale, zertan den garbizale eta zein garbizaletasun-ereduz jarduten duen. Berrezarpen lexikala beti izan da garbizaletasunerako ibilbide nagusietariko, eta orain ere halatsu da irakasmunduan.

### 1.7. Sintagma-erakuntza garatuak

Ez dago dudarik hitz-andana lotuen paradisu dela hizkuntza tekniko, esparru gehienetan. Euskara ezezik auzo-erdarak ere horren lekuko xuxenak dira. Demagun, esate baterako, honako erdal zerrenda labur hau:

coefficient d'absorption total linéaire serie absolutamente convergente internal-combustion engine fonction heterosyntaxmatique producto nacional bruto mínimo común múltiplo gram-molecular volumen excedente neto sobre el coste refractive index of a medium centro instantáneo de rotación ley de composición interna neurovegetative Dystonie
---

Nahi adina luza daiteke auzo-erdaretan, jakina denez, lexiko-unitate konplexuez osaturiko izendapen teknikoan zerrenda: horrek ez du bukaerarik. Benvenisteren *sinapsia* edo besteren *lexia* horiek ezin amaituzko neurrian agertu ohi dira hizkuntza teknikoetan oro har, eta irakasmunduko euskaraz bereziki. Euskal sintagma-erabide desberdinak ongi ezagutu eta erraz manejatzea eskatzen dute lexiko-unitate konplexuok, txukun eratu badira. Hain ugariak eta anean unekoak izanik eratu egin behar izaten baititu sarri hiztunak, bere kabuz josi eta osatu alegia, non eta aski forma ezagunak

ez diren. Era honetako sinapsien ugaritasunari zor zaio, neurri on batean, goiko irakasmaitetako testu-liburu asko euskaldun arruntentzat hain arraroak izatea: bertako hitzak ententituko dituzte akaso banan-banan hartuta; baina “gehiegi” pilatzen egosgaitza gertatzen zaie irakurtzen edo entzuten ari diren testua. Erdarazko *producto nacional bruto* edo *mínimo común múltiplo* ez litzaizkiguke errazago gertatuko agian, lehendik askotan entzunak (zenbaitetan, are, buruz ikasiak) ez bagenitu. Hor dago euskara teknikoaren aparteko koska, aurrerago berriro azalduko dugunez.

Nolanahi ere, beren gordin-aire eta guzti era horretako sinapsia edo lexiko-unitate konplexuz bete samarrik egon ohi dira euskal testu teknikoak. Gorago esan denez, euskal hitz-elkarketak laguntza handia eskalari ohi du erdal sintagma-erakuntza bihurri horiek euskaraz azaltzeko. Demagun, erakuntza laburrenetaik hasita, erdal *acutángulo*, *rectángulo* eta *obtusángulo* euskaraz esan nahi direla: hurrenez hurren *angeluzorrotz*, *angeluzuzen* eta *angelukamuts* eratu duenak ez du, funtsean, ohizko euskal bahuvihi-elkarteen ereduaz baliatu baizik egin. Hitz-elkarketaz eratuak ditugu, orobat, irakasmunduan hain ezagunak ditugun *adimen-koefizientea*, *deklinabide-atzizkia*, *ekonomi garapena*, *oreka-egoera*, *kontrol-taldea* edo *nerbio-sistema* modukoak eta beste hainbat.

Sintagma-erakuntza berriotarako oso baliagarri izanik ere, hitz-elkarketa ez da ordea konbinazio-behar guztietarako egokia noiz horretara jo, noiz adjektibo erreferentziazalez baliatu (*zirkuitu elektriko*, *dokumentu ofizial*, *hizkuntza klasiko*,...), noiz izenlagunen ezker-hedapenak egin (*kntikarako gaitasun*, *pedagogiazko ikerketa*, *irakasleen prestakuntza*,...) edo noiz joskera-molde libreagoz baliatu ez da lan erraza izaten, eta hizkuntza tekniko horretan ari denak (zer esanik ez erdal testu tekniko trinkoren bat itzuli behar duenak) tentu handiz ibili behar izaten du: betibateko formula eginik ez dago hor asko.

### 1.8. Joskera-molde luze, korapilatua

Adibide xoil batzuek adieraziko digute, labor eta argienik, zer dugun aipagai. Demagun, irakasmunduen esparru jakin batera mugatuz, ikastetxeetako administrazio-kontuez ari garela. Har ditzagun, esate baterako, horretaz ari diren erdal idazkietan barra-barra agertu ohi diren esamoldeok:

- correspondería a dicho órgano la fijación del programa de actividades extraescolares y complementarias; será de su exclusiva competencia regular el procedimiento de elección de los miembros del órgano máximo de representación;
- habrá, finalmente, de fijar y coordinar criterios sobre la labor de evaluación y recuperación de los alumnos, planificando y dirigiendo las actividades de investigación pedagógica.

Har ditzagun orobat, eskola-administrazioaren alorretik jakintza-gai konkretuen testuetara pasatuz, honako adibideok:

- mientras que los sinónimos son mutuamente sustituibles, entre los significados que están en una relación jerárquica (o de hiponimia) el término genérico puede sustituir al hipónimo, pero no a la inversa (...). La relación de hiponimia es una expresión lingüística de la relación lógica de inclusión de una clase en otra.
- de acuerdo con el teorema del área de momentos, el desplazamiento del punto C (bajo la carga) respecto a la tan-

gente trazada por B es igual al momento del área bajo el diagrama M/EI entre C y B respecto a la vertical por C;

- e) la integral de una función u por la diferencial de otra dv es igual al producto de ambas funciones menos la integral de la integral hallada v por la diferencial du de la función primera;
- f) la estructura de las aptitudes motoras —que incluyen las destrezas manuales, digitales y de miembros enteros, a la par que coordinaciones visuo-manuales y pedales más complejas— se caracteriza por (...): el predominio de los sistemas periféricos, sobre todo motrices, sobre los centrales, y la especificidad de las actitudes, tanto más numerosas e inconexas cuanto más acusado es el predominio de los componentes motores.

Erdaraz irakurrita entenditzeko modukoak diruditen sei perpausok lan handia ematen diote gehienetan euskaraz txukun jarri nahi dituenari. Itzultzea teknika bat da, trebetasun profesional bat alegia, eta errazegi ahazten dugu A eta B hizkuntzak txukun samar jakitea ez dela aski Atik Bra edo Btik Ara ondo itzultzeko. Teknika horiek ondo menderatzen ez dituzten pertsonak (eta irakasmunduko profesional gehienak ez dira itzulpen-teknikan berariaz trebatuak) buruhauste handiak izaten dituzte erdaraz ikasiak dituzten (edo soil-soilik erdal iturritik jasotzen dituzten) horrelako testuak euskaratzeko. Joskera-molde luze, korapilatuak ateratzen zaizkie sarri; euskal sintaxi-arauekin nekez ezkon daitezkeen modukoak ere bai inoiz. Erdarazkoan baino ilunagoak gehienetan.

Arazoaren parte bat da hori, halere, ez arazo osoa. Itzulpen-lan egokia eginik ere, joskera-molde korapilaturik nekez saihestuko baita halakoetan. Aspalditxokoa du hizkuntza teknikoaren prosa-moduak, hainbat alorretan, hartarako joera. Ez da inola ere ezinbestekoa, eta auzo-erdatan bertan badaude gauza bihurri-trinkoak prosa errazean azaltzen jakitearen lekukotasun argiak; baina egia da, guztiarekin ere, bestetan baino maizago agertzen direla testu trinkoak hizkuntza teknikoetan: batez ere unibertsitate alorrean eta definizio-azalpenen ingurumarian.

Euskara ere ez dugu salbuespen. Alde handia dago normalean hizkera-molde arruntetik (edo horren arrastotan dabilen idazmoldetik) gai tekniko baten azalpen sistematikoa eman nahi duen testura. Aldera ditzagun, esate baterako, ondoko bi testuak:

- a) Jose Manuel Arrizabalo-ren *Baso-mutillak* kontaera-liburua, beste hainbat idazlan jatorren moduan Antonio Zavalak prestatu eta argitara emana;

Perretxikoak bai, oso ederrak: gibelurdiñak eta, ontuak eta, ziza oriak eta... Jan ederrak egiten giñuzen. Goiko eskiñetan udaberriko ziza zuriak ere izaten omen ziran; baiña gu ez giñan ara joaten.

Irati'ko mendiak, puntu asko ditu beren izenakin: Koxta izenekoa bada; Errekaidor ere bai; Pikatua ere bai; Irabia ere bai; Errekabeltxa ta Errekaxuria ere bai. Badira geiago ere, baiña etzaizkit gogoratzen orain.

Errekabeltx orrek ur illun samarra zuan, ta amorraia asko.

Errekabeltx ortan, Espaiñi'ko karabinero batzuek egoten ziran beren txabolatxoan. Baiña andik etziran aiek iñora ateratzen, beren errira joateko ez bazan.

Pasadizoa antxe zegoan, bidexior bat txabola ondoan, Espaiñi'tik Prantzi'ra pasatzeko.

Baiña andik bi aldeetara, kilometro-sailletan ezker ta eskubi, etzegoan ezer ere; arbola bakarrik.

An inguruan zeuden erriak, Otxagabia izango zan aurrena; baiña lau edo bost orduko bidea izango zan txabola artatik; eta Orbaizeta'ra sei edo zazpi.

Irati'ko eskiña aldera, berriz, Roncesvalles-edo esaten zaion fraile-konbentu ori, Burgete baiño gorago. Valcarlos ere eskiñatik. Ez da besterikan or. Oiek, Espaiñi'ko aldetik.

Prantzi'ko aldetik, berriz, Mendibe aurrena, ta ara ere sei bat ordu.

- b) Etxeko eta lagunarteko hizkera-molde naturaletik hain hurbil dagoen testu-zati hori aldera dezagun, orain, Koldo Mitxelena-ren Arantzazuko txosteneko orrialde batekin:

Euskal-hitzak sortzean, eta nomahik sortzen ditu mintzatzean, gogoan eduki dezagun beti, premia gainera, gure hizkuntzaren moldea, beti izan bait dugu horretarako erraztasuna, hitz-elkartzearen bitartez, batez ere. Nora-ezekoa du hizkuntzak sor-iturti horrek bizirik iraun dezan, bere izatean iraungo baldin badu.

Hitz-elkartze berrietan, eta orobat zaharren artean hautatze-koan, bi indar ari zaizkigu beti lanean. Eredu zaharrak, bate-tik, eta analogia delakoa, bestetik: *luze-k*, antzinako patrioiari segituaz, *luza-tu*, *luza-ro*, *luza-mendu* eta abar eskatzen du: analogiak, berriz, kidea kidearekin daramala, *luze*, nonahi agertzea nahi luke. Gehiegizkorik gabe, nik uste, lehenbiziko joerari eusten ekin behar genduke egin-abalean, oraingo isurriak bestera bait garamazki.

Kultura-gaietan hartzaile -bestearen zordun, beraz- geranez gero, bidezko da noski hiztegia ere hartzaile eta zordun agertzea. Gogoetak gerok sortu bagenu, ez genduke, gabiltzan bezala jakite-gauzetan eta, beste hizkuntzetan sortu dituzten hitzak itzuli nahian ibili beharrik. Gauden gaudenean, ordea, maiz nabaritzen dugu premia hori. Badu euskerak hitz-sorbide ugari, baina baita ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan. Ez dugu (des- eta horren antzekoren bat edo beste kenduz geroz) aurrizkirik, latinezko ad-, ab-, co(n)-, de-, dis-, ex-, eta gainerakoan indarra bihur dezakenik. Erremedio bat baino gehiago izan dezake huts horrek, baina ongi pentsatu behar litzake gerora gabe nola joka.

Bestetariko hitzak lehen hartu ditugu, eta ez dago beste biderik, aurrera ere. Hitz horien itxuraz, ordea, bi iritzi dabilta gure artean: itxura hori, etorkizkoa alegia, gorde nahi luke-te batzuek egin-ahalean, frantsesaren arabera edo, eta itxura aldatzea, xinpletzea, gogokoago dute besteek, gaztelariaren arabera.

Nik, egia esan, lehen bidea hartuko nuke ikasientzat ari bagina, baina ez da hori gertatzen. Xinpletasunera joko nuke are-ago, edo bide-erdira behintzat, y, kh, th (psykologia, etc.) eta gisa horretako idazkerak baztertuaz.

Horiek, noski, izen propioetan behintzat gorde behar lirake (orobat c, qu eta antzekoak). Beste hizkuntzetako izenen transkripzioa (letra berak usatzen ez dituzten hizkuntzetakoa) erabaki beharko da egun edo bihar, baina ez dugu hori lanik

presakoena. Euskal-izenak berak nolakoak diren erabaki eta irakatsi behar genduke aurrenik.

Nik bidezkozat aitortuko nuke erderatikako hitz berrietan v gordetzea eta kontsonante-multzoak aldatu gabe uztea, nahiz ez zorrozki agindu: *vektore*; eta *-logia* azken-buruz dutenetan eta antzekoetan, *g* gordeko nuke, bakoitzak bere erara esan dezan.

Mitxelenaren testu horretako joskera-moldea Arrizabalorena baino luzeagoa eta korapilatuagoa da, eta ez dugu inola ere errenteriarren zatirik trinkoena aukeratu. Itzulpenari ezin zaio hor, bistan denez, makurrik aurkitu: euskaraz pentsatu eta euskaraz sorturiko idazlana da Arantzazukoa, gauzak ondo neurtu eta taxuz paratua. Mamia da, neurri on batean, batetik besterako aldea sortzen duena: baso-mutilen bizimodu eta sentierak adierazteko ez du Arrizabalok aparteko hitzik asmatzen edo eraikuntza berririk sortzen ibili beharrik izan: *perretxiko*, *ezker ta eskubi*, *errira joan* edo *arbola* ezagutzen ez duen euskaldun askorik ez dago; hitz-elkarteetan ere forma gutxi eta argiak eman dizkigu (*kilometro-sail*, *fraille-konbentu*). Mitxelenak, aldiz, *eredu*, *analogia*, *hiztegi*, *gogoeta*, *aurrizki*, *idazkera*, *transkripzio* moduko hitz "jasoak", amaren altzoan inork gutxik ikasten dituen horietarikoak, darabiltza ezinbestean, eta hitz-elkarketara jotzen du behin eta berriro (*sor-iturri*, *hitz-elkartze*, *kultura-gai*, *jakite-gauza*, *hitz-sorbide*, *kontsonante-rmultzo*,...)

Idazletik idazlerra alde handiak daude, bistan da, testu teknikoak prestatzerakoan: itzuli baino gehiago birsortu (zer esanik ez jatorrizkoa sortu) egiten duenak libreago ditu eskuak, euskal joskera-legeak bihurtu gabe gauzak azaltzeko. Irakasle edo liburu-prestatzailearen mintzagaitasuna eta gauzak argi eta xalo azaltzeko trebezia giltzarri izan ohi da maiz. Ez dago ukatzerik, ordea, testu teknikoan prestatzaileek badutela oro har joskera-molde luze, korapilatuak sortzeko premia eta horrek berekin dakarren arriskua.

### 1.9. Idatzizko testua nagusi

Eguneroko hizkera arruntean ez bezala, joera handia egon ohi da hizkera teknikoetan behin eta berriro testu idatzira jotzeko eta egokitasun-eredua inoren idazlanetan bilatzeko. Ez da harritzekoa, mintzaera horretaz baliatzen diren solaskideak zein diren, elkarrekin nola jarduten duten eta zer emaitzetara iristen diren kontuan hartzen bada.

Has gaitezen irakasleekin: unibertsitatean jasoak dituzte gehienek, beren ikasle-garaian, lanbidezko ezaguerak; arbetetik kopiatuz edo apunteak hartuz, bibliografia tekniko behin eta berriro astinduz. Idatzizko testuak izanak dituzte gehienetan, alde edo molde, beren jakinuturri. Irakasle bihurtzean ez dute joera hori areagotu baizik egiten: ikasleentzako apunteak prestatu, liburuetakoa ikasgaiak gelan azaldu, azterlan idatziak zuzendu,... irakasmunduko profesionala idatzizko testuen jirabueltan dabil etengabe.

Antzeko egoeran daude ikasleak: hainbat asiguratutako kontzeptu eta azalpenak liburuetatik edo apunteetatik ikasten dituzte; azterketa asko idatziz egiten dira; eta gainera, eskolan edo etxean, berariazko idazlanak egin ohi dituzte. Paper artean ikasten dute ikasten dutena. Hizkuntza tekniko ere handik jasotzen dute, hasiera batean.

Irakasmunduaren produkzioa dago, azkenik: hizkuntza teknikoaren erabilerari dagokionez liburu eta aldizkarietan isladatzen da, nagusiki, produkzio hori; ikus-entzunezkoetan gutxiago eta, orduan ere, testu idatziak izan ohi dira esatari

gehienek erreferentzi gune. Softwareak ere, azkenik, testu idatzian du bere oinarria.

Hizkuntza idatziaren eragina handia da, beraz, esparru honetan. Ezin harritu, ondorioz, irakasmunduan gero eta sarriago ikusten den honako fenomeno honekin topo egiten badugu: euskaraz gai tekniko batez idazten hobe daki zenbait irakasle edo ikasle euskaldunek, etxe-giroko edo lagunarteko solasketa bizian jarduten baino. Gai honek, ordea, euskarak gaurko gure gizartean dituen berezko ezaugarrietara garamatza.

## II. BERARIAZKO EZAUGARRIAK

Irakasmunduko euskara teknikoak baditu, orain arte esandakoez aparte, guztienak ez baina bere-bereak diren beste zenbait ezaugarri. Horiek aipatu nahi ditugu hemen, labur-labur izango bada ere.

### II.1. Berrikuntza-saioen oinordeko

Saio ugari egin izan da gure artean, azken mendeotan, batez ere gizarte-bizitza arrunteko aho-hizkuntza (hots, hortik "gora"-goko eginbideetan apenas sarbiderik zuen euskara) bizi-esparru orotarako galtzeko. Iparraldeak ondare zabala utzia digu, XVIII. menderainoko emaitzei dagokionez: Axularren garaia, bereziki, oparoa izana da gaur ere eredu-indarririk falta ez zaion prosa jasoa lantzen. Bere aurretik eta ondoren ere, Etxeberri Sarakoa tartean delarik, jakintza-alorreko hizkuntz prestatutzak bide luzea eginga du Bidasoaz haraindian. Hegoaldean Iparrean hamo beranduago hasiak gara lan horietan, ezaguna denez. Hemen ere ugariak izan dira ordea saio horiek, batez ere Larramendik orain bi mende t'ardi inguru bide horri heldu zionetik.

Irakasmunduko euskarak oro har, eta euskara teknikoak bereziki, oso harreman zuzena du saio horiekin guztiekin: herri xehearen hizkuntza nagusia gizarte-esparru guztietara zabalduta eta agerbide desberdinetarako gaitzeko langintzak arrasto sakonak utzi ditu egungo euskara teknikoan Larramendik plazaraturiko hainbat hitz eta hizperrik, jatorrizko adiera gorderik edo berririk erantsita, egungo ikasliburuetarainoko bidea egin du, eta nekez esan ahal izango da *garranzia*, *ikas(t)ola* modukoak egungo hiztunentzat hitz "asmatuak" direnik: beraien hitz-altxorrean finko txertaturik daude eta bizi-indar beteak dute. Matematikako *zenbaki*, *zenba(ki)tu*, *zenbateko*,... modukoak berak, egungo egunean eskolaume euskaldun gehien-gehienek ahotan dabilzan hizperri gisako horiek ere, alegia, ez dira atzo goizeko sorkariak atzera begira hasiaz Añbarroren eta azken-azkenik Larramendiren *cembate* (número), *combatetu* (numerar), *cemba(t)e(t)ze* (numeración), *combategarri* (numerable), *combatetzalle* (numerador) gogorazten dizkigute.

Beste horrenbeste gertatzen da Azkue-Arana bikoteak hasi eta hainbat Jarraitzaile zintzok gerra-garairarte bederen egindako egokitze-saioekin, Gaintutakotzat jotzen ditugu sarri haien ahaleginak, halako batean zuzentzea asmatu genuen okerbideetatik hartzen ez ditugunean. Ez gara konturatzeko, itxuraz, irakasmunduko euskara teknikoak mende-hasierako berrikuntza-saio hari zenbat zor dion, mami eta azal. Grafia kontuan eta maileguen (batez ere kultur hitzen) trataeran ordutik hona izandako bide-aldatzeek ez digute, antza, erlijio-esparruak kanpoko prosa-lanketan zer neurritaraino bidetegi izanak diren jabetzen uzten: aurreko saio horiek ere, bere neurrian eta moduan, zehatzago, prestuago eta malguago bihurtzen lagundu digute euskara.

Hiztegi-berritzearen alorrean ere uzta joria dugu haiengandik jasoa. Irakasmunduan gaur egun erabiltzen den hizkuntza teknikoak berrikuntza-saio horien oinordeko da: ikasgeletako *aldizkari* eta *geltoki*, *berezitasun* eta *baldintza*, *argitalpen* eta *idazkaritza*, *abesti* eta *aurkezpen*, *udaletxe* eta *hauteskunde*, *argazki* eta *bulego* ez dira euskaldun gehienok etxean ikasitako hitzak, aurrekoen saioek prestaturiko ondare jaso horren emaitza baizik. Aurrekoen bateratze-saioek sortu digute beraz gaur egun aski era naturalean darabilgun mintzaera landu jasoa, zientzi-tekniken esparrurako lehengai emankorra eskaintzen duena. Ez da beraz egia, inoiz edo behin entzutea gertatzen den leloa: gaurko euskara teknikoak aurrekoen eredutik zeharo apartekoa dela.

## II.2. Saio berriak. Esperimenturako joera

Egia da ordea, guztiarekin ere, eskuetara etorri zaigun hizkuntz eredu hori auzo-erdara nagusiak baino ondotoz "gordin"-ago, "egingabe"-ago zegoela hainbat puntutan. Terminologia teknikoan, lehen-lehenik, eta hitz lauuko estilo-lanketan oro har. Grafia aldetik ageri zituen bateragabeziak asko konpondu dira denbora gutxian, eta txikiak dira gaur egun, aurrekoen ondoan.

Gordin edo egin-eskas zeuden alor horiek lantzen saio handiak egin dira azken mende-laurden honetan. Euskara teknikoaren berezitasun deigarrienetarikoa da hori. Hiztegi teknikoak sortu eta zabaltzen lan handia egin da: aski dugu hemen UZEIren langintza aipatzea, irakasmunduari begira eginiko zabalena berau delakoan; beste asko ere izan dira ordea, alde edo molde, irakasmundurako hiztegiak (eskolaurre txikienetatik hasi eta unibertsitate-mailaraino) prestatzen eta argitara ematen jardunak. Eta ez dago ahazterik, orain errazegi ahazten badugu ere, L.M. Mujikaren eta, batez ere, X. Kintanaren hiztegiek eragin handia izana dutela egungo hiztegi modernoaren oinarriko ezaugarri asko finkatzeko orduan.

Horrekin batera (lehenagotik hasita, hain zuzen) lan zabal eta sakona egin da hizkuntzaren corpus-plangintzaren teoriarik *cultivation* deitu ohi den horretan: lexikoa lantzeaz gainera prosa-molde funtzional bat eratu eta zabaltzea ez da lanik samurrena izan. Horretarako, auzo-hizkuntza handietan luze-zabal azaldurik zeuden jakite-gaiak euskaraz landu eta, liburu edo aldizkari moduan, argitaratzeari garrantzi handia eskaini zaio azken mende-laurdenean: hasieran, 60ko eta 70eko hamarkadan, LUR eta JAKIN taldeek egin zuten *cultivation-saio*rik zabalena. Talde horiek giza eta gizarte-zientzietan markaturiko ildotik ELHUYARrek ekin zion teknika-alorrari; eta Leioako zenbait irakasle euskaldunek, geroko beste askoren bide-erakusle, zientzia zehatz eta fisiko-naturalen alorretara zabaldu zuten *cultivation-lanketa* hori. Ezagunenak baizik ez aipatzearren UEUren argitalpenak aipa litezke hemen: bere liburu-katalogoa eskuztatzea aski da fenomeno horren zenbaitetako eta nondik norakoaz jabetzeko. Azken orduko saioei dagokienez ezin aipatu gabe utz daiteke, berekin duen disciplina anitzeko lanketa-maila ohargarriagatik, LUR, ELHUYAR, EUSENOR eta abar entziklopedi alorrean urratzen ari diren bidea. Eskoletarako, batez ere irakasmaila ertainetarako, testugintzan ari diren argitaletxeek ere oso bertatik jarraitu ohi dute egokitzapen-lan hori.

Hizkuntzalaritzak aparteko lekua du, bestetik. Hor ezin da halere mende-laurdeneko gertaeraz hitz egin: beste alorretan baino pauso sendoagorik eman izan da hor, eta ondotoz lehenagotik, prosa teknikoak lantzeko; Azkueren, Altuberren eta mende-hasierako beste hainbat saioak hor daude, diogunaren lekuko. Lehendikako tradizio horiek bildu eta sintetizatzeaz gainera, euskal linguistika zientzi arauzko ikermolde

biltzen hainbat saiaturiko Mitxelenak jakintza-alorrerako euskararen eredu bizi bat eskainia digu, gainera, guztioi. Azken mende-laurdeneko euskara landuak, baita irakasle prestatuenen idazkerak ere, asko zor dio Mitxelenak landutako estilo horri: ohizko hitz-altxorreko elementuak adierazkizun berrietarako egokituz, eta joskera-molde jatorrak hitz lauuko azalpen zehatz malguen iturburu bihurtuz, bide luzea egin du euskarak Arantzazuko eredu hartatik hona. Eredu hori ere ez da erabatekoa, ordea: ikusi besterik ez dago, horretaz jabetzeko, Mitxelenaren eredia behin eta berriro goraiatzeko eta iturburutzat hartzen dutenen artean, filologo zein ez filologo, zenbaitetako aldeak dauden. Aldeak alde, hizkuntzalarien zein bestelako euskara-lantzaileen artean terminologia eta prosa alorreko bateratze-urak beren bidea egin ari dira.

Bidea ez da ordea, gehienetan bezala, aurrerabide huts izan: bide-galtze eta aldatzerik ere izan da tartean, eta gazteagoon esperimentu-joerarik ere ez da noizean behin falta izan. *Ausbau-filosofia*k eraginik orain hogei bat urte hain modan egondako joerak, erdal *-cio(-tion)* bukaera gehienak *-keta* (*informaketa*, *ebaluaketa*, *konbinaketa*, *programaketa*) edo *-peri* (*informapen*, *balorapen*, *kalifikapen*, *motibapen*) modura "euskaldunago"-tzera bultzatzen zutenak adibidez, ez dira gehienetan esperimentu-fase horretatik aurrera joan. Zailago da, aitzitik, exonormatibismoaren euskal itxurapeko interferentzi emaitzen zenbaitetako eta norainokoa neurtzen. Hizkuntzaren barne-egiturari bertagotik erasaten dion neurrian kontuanago hartzekoa da azken hori, izkutuagoa izanik ere.

Han-hemen zabaltzen ari zaizkigun kritikak, hain zuzen ere, erasate-molde horri dagozkio. Eta ez arrazoi faltaz. Zer dela-eta hasi behar genuen, hain eskuazabalik hasi ere, *ikasleak prestatzeko* plan-etik *ikasleagoaren prestatutzarako* *plangintza-ra* salto egiten? Zergatik utzi ditugu *zuzendaritza(-taldea)*, *erruki-etxe* modukoak alde batera eta bete-betean ekin diogu *batzorde zuzendaria*, *hirugarren adinekoen* egoitza modukoak eratzeari? Batzuetan, bistan dago zergatik: egungo gizarte-bizitzak (ez hizkuntza honen edo haren barne-eramoldeak) lehendikako esapide batzuen konnotazioa gaitzetsi egiten duelako. Horrela, zaharren babes-zerbitzuari kendu egin nahi izan zaio, kosta ala kosta, erruki-kutsua. Modak ere, gauza berbera ez izan arren, antzeko eragina sortu ohi du sarri: gaztelanatik datorrigun esapide-modari zor zaio, horrela, "mundu *mailako* zabalkundea"-z (*difusión a nivel mundial*) hitz egitea, *mailako* horri lehen ez bezalako posposizio-lana erantsiz. Beti ez da, jakina, ohizko hitz-ondarea gizartearen iritzi-bilakaera edo moda-kontu horregatik berritzen; gehienetan ere ez, agian. Egia da ordea, guztiarekin ere, hizkuntzaren beraren barne-egoera astindu eta erasan egiten dela sarri, behar handirik gabe ere bai zenbaitetan, berrikuntza-saio horiekin. Esperimentu-bidea gaitzeste hutsarekin ezin zaio, ordea, arazo horri konponbide artezik aurkitu. Hori baino zabalagoa baita problema, hurrengo atalean azaltzen saiatuko garenez.

## II.3. Euskararen egitura bereziaren eragina. Itzulerraztasuna.

Bide berriak urratzen dabilenak bide-galtzeak izan ditza-ke noski, eta esperimentu-joera horien baitan balegoke horretarako arriskurik. Arriskuen erantzukizun-zati bat ezin lepora dakiekie, ordea, bide-urratzaileei. Eta bai, aldiz, biderik ez egoteari edo landu gabea izateari. Gorago ere aipatu denez honela zioen Mitxelenak Arantzazuko txostenean, hitz berriez ari zelarik, bertako IV.4. atalean: "Gogoetak gerok sortu bagenitu, ez genduke, gabiltzan bezala jakite-gauzetan eta, beste hizkuntzetan sortu dituzten hitzak itzuli nahian ibili beharrik.



Gauden gaudenean, ordea, maiz nabaritzen dugu premia hori. Badu euskerak hitz-sorbide ugari, baina baita ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan. Ez dugu (des- eta horren antzekoren bat edo beste kenduz geroz) aurrizkirik, latinezko *ad-*, *ab-*, *co(n)-*, *de-*, *dis-*, *ex-*, eta gainerakoen indarra bihur dezakenik. Erremedio bat baino gehiago izan dezake huts horrek, baina ongi pentsatu behar litzake gerora gabe nola joka". Mitxelenak huts nabarmenatzen aitortu izan duen hori litzateke, gure azalpen-moldera itzuliaz, biderik ez egote edo landu gabe izatearen adibide ezagun bat. Terminologiaren, neologismo edo hitz berrien alorrean bakarrik ez zaigu, gainera, horrelako muga-eragozpenik gertatzen. L. Villasantek maiz azaldu izan du, sintaxiaren alorrera pasatuz, euskal perpaus elkartuak osatzerakoan Axularrek eta beste hainbatek erabilitako erdal kutsuko joskera-moldea ez dela ezinbestean "euskal sena" galdua izanaren edo erdal ereduaren imitazioa izatearen ondorio. Badagoela hori, alegia, definitzen hain erazza ez bada ere "estilo logiko-diskurtsibo"-aren eskakizun-modu bat; eta euskal prosak, Altuberen zuzentasun-patroiaz bereziki, azalpide horretara zehatz-mehatz egokitzeko leukakeen zailtasuna ez dela gutxietsi behar.

Irtenbideak, hizperrigintzan zein prosa-osaeran, bat baino gehiago aurkitu izan zaizkio zailtasun-modu honi. Hizkuntza teknikoaren terminologi alorrean, bereziki, mugatzaile-hitz, aurrizki edo, inoren izendapenez baliaturik, para-aurrizki berriak ari zaizkigu sortzen, batetik: *azpiegitura*, *ultramore* eta *aurreproiektu* modukoak barne-barneraturik ditu, horrela, irakasmunduko teknolektoak; ondotoz harrera okerragoa izan dute aldiz, begien bistako arrazoiengatik, *aurresuposatu* modukoak; eta ez dute inolako eraginik izan, erdal aurrizkien ordainen behararen egoteak ez baitu esan nahi mimetismo itsuz jokatu beharra dagoenik, *barrentsartu* ("introduci") moduko proposamenek. Matematikaren alorrean sarbide zabala izan du, bestalde, bertako formulazio-moldeak eragindako hainbat joskerak. Demagun, adibidez, "a ixa (ekis) bi gehi b ixa (ekis) gehi c berdin zero" ezaguna edo, multzo-teoriara aldatuz, "A bil B bil C berdin D". Hori ez da esperimeturako joera, beharrak eragindako bide-urraketa baizik.

Oinarri-oinarrian itzulerraztasunaren auziarekin egiten dugu, honelakoetan, topo: euskararen egitura berezia bere hartan errespetatuz, auzo-hizkuntzetan zehatz eta argi emanik dauden jakintza-azalpenak erraz eta txukun itzultzeak sortzen dituen buruhausteekin. Hizkuntz plangintzaren alorreko zenbait jakitunek *intertranslatability* deitu izan duen horri esaten diogu hemen, hoberik ezean, itzulerraztasun. Gure-gurea baino areago, eremu urriko edo gurearen antzeko hiztun-herri askotan ageri den ezaugarri-marka dugu hau. Honela azaldu izan du Fishmanek itzulerraztasunaren kontua: "modernization is commonly characterized by a desire to attain technical and cultural features, believed to be already present in reference-communities considered to be already modern. In the language field, as Ferguson has stressed (1968), this takes the form of striving to render as adequately and effortlessly in one's own language that which is already accurate and easily expressible in one or another crucial language of wide communication. However, intertranslatability goes beyond lexical and gramatical features alone to conversational and written styles as a whole". Irakasmunduan bakarrik ez da ageri, jakina, kanpoko hitzak eta kontzeptuak, ahalik eta era xuxen eta erosoenean, guregana bihurtzeko joera. Komunikabideetan eta administrazio alorrean ere sarri ageri da jokamolde horren oihartzunik. Egia da ordea, guztiarekin ere, jatorrizko erdal testuekiko lotura hori bereziki nabarmena dela jakintza-alorreko euskal idazkietan.

## II.4. EGUNGO ERABILMODUA

Irakasmunduko hizkuntza teknikoaren kodeztatze-lanean eta *cultivation* fasean esana dugu, halako xehetasun batez, azken urteotan zer-nolako pausoak eman diren. Bere-bereak dituen ezaugarrien ondoan nonahiko hizkuntza teknikoaren arrastotik dabilela ikusi dugu, hainbat puntutan. Kodeztatze-lanari dagokionez normaltasun batera hurbiltzen ari da euskal teknolekto hori.

Ez da, ordea, gauza bera gertatzen hizkuntz aldaera horren egungo erabilera definitzen duten parametro soziolinguistikoekin: hor antzematen da argi, inon argi antzematekotan, euskarak oro har eta hezkuntza alorreko euskara teknikoak bereziki zer-nolako berezitasunak dituen. Eskolatik kanpora ia erabiltzailerik ez duen jakintza-hizkera ez da, "has-teko, egoera "normalean" dagoen jakintza-hizkera: ez da "normala", alegia, Lanbide Heziketako kontabilitate osoa x hizkuntzan (hartarako osaturik duen teknolektoan) ikasi eta gero, horren parez pare, bere kontabilitate-lanak x hizkuntzan bideratzen dituen enpresa-mundurik, berdin du burokrazia publikoan zein pribatuan, ia ez izatea. Ez da "normala", orobat, teknolekto hori maizenik erabiltzen dutenak, irakasleak eta liburu-prestatzaileak, beren gaztaroko eskolaketaz eta formazioz gai horiek ia beti erdaraz ikasiak izatea: gurean ez bezala eskolan eta ikasliburuetan, urte luzez eta jarduera aski uniformatuaz, jasotako zientzi hizkuntza bera transmititu ohi dute, normalean, auzo-hizkuntza nagusietako irakasle eta ikasliburugileek.

Normaltasun-egoera horretara Iritsi ez den teknolektoak berekin ditu beraz, ezinbestean, aurreko honek ez bezalako arazoak. Batetik terminologiako egonkortasun eza, bai norberaren espezialitate-esparruko testuak hitzez zein idatziz sortzerakoan eta bai, bereziki, disziplinarteko euskara jaso, zabal, hiztun-elkarte buru-jantziaren komunikazio-tresna funtzional gisa erabili ahal izateko.

Euskara teknikoaren erdal teknolektoekiko menpekotasuna ere aipatu beharra dago, bestetik; bai mailegutzaeren eragin masiboa eta bai, bereziki, kontzeptu-sare teknikoaren konformazioa erdal makulu horietaz baliatzen den hiztun-elkartearen beregaintasun osagabearen oihartzun da Hizkuntzaren barne-egituraren periferiatiko kanpo-eraskan honek hizkuntzaren muinari berari norainoko egonezina erants diezaiokeenaren seinale ere bada, bide batez

Azkenik, ez dago ahazterik hizkera-modu tekniko hauen zabalkunde- eta birsortze-arazoak aski dimentsio bereziak dituela gurean. Gure arteko Ikasmaterialeen protagonismoa handia da, eginkizun honi dagokionez, egungo egunean. Ez, ordea, bakarra behinola indar berezia eskuratzera Intsi ziren alfabetatze teknikoak ikastaroek balukete orain ere, zenbait aldatetarekin, zeregin bereziak. Eta, ororen gain, eskola alorreko teknolektoari berezko jardun-esparruak segurtatu beharra dago gizarte-bizitzan, hizkera tekniko horren menderakuntza eskola alorreko eta eskola-garaiko epifenomeno bitxi baten gisa iharturik geldituko ez bada. Azken eginbehar honek, bestalde, hizkuntz jokamoldearen egungo gizarte-antolara bera aintzakotzat hartu eta, neurri batean edo bestean, antzaldatzea eskatzen du. Horrek, aldiz, gutxienezko jardun-esparru batean bederen luze-zabaleko finkapen-erabakiak hartzea lekarke berekin

Hizkuntzaren beste hainbat alorrean bezala, badugu honetan gauzak alderantziz planteatzeko arriskua. Gure auzo-erdara nagusien teknolektoak ez dira aberatsak, jator-funtzionalak eta egonkorrek aurreko mendeetan corpus-lanketa handia egin izan dutelako. Hori ere egin izan dute, neurri

batean edo bestean, baina ez dira horregatik aberats, jator-funtzional eta egonkor, beste honegatik baizik: eguneroko jardunean hizkera-molde teknifikatu honetaz baliatu behar izaten duten gizatalde zabalak dituzte hizkuntza (hots, hiztun-herri) horiek. Gizatalde horien etengabeko jardunak (eskolan, industria, justizi alorrean, osasun-esparruan, ikerketa-munduan, kazetaritzan, administrazioan eta zerbitzu publikoetan) eratzten, osatzen, bizirik mantentzen eta "betikoa" izanik "etengabe berritzen" du kasuan kasuko teknolektoa. Gizatalde horien behin eta berriroko elkar-ekintzak, horren euskarri den harreman-sareak, ematen dio beren hizkuntza teknikoari hatsa eta bizi-indarra. Irakasmunduko zientzi hizkuntza luze-zabaleko mintzajardu horren zati izan ohi da normalean; eta batzuetan, ez gehienetan, iturburu. Gizarte-esparru profesional "moderno" gehienetan hain bizi-ingarri ahula duen hizkuntzak irakasmundura jo ohi du horregatik, hain sarri, konponbide hila. "Guk ez dakigu hori euskaraz esaten eta eskribitzen. Hori seme-alabei erakutsiko diete, eskolan" aitortu ohi du, bestelako buruhausterik gabe, guraso askok. Duda izatekoa da, ordea, eskolak bakarrik, unibertsitatea lagun lukeelarik ere, hartarako indarrik duen. Eta eskola diogunean bertara bil ditzakegu, bide batez, terminologi lanketaz arduratzen diren etxeak ere.

Eskolak eta bere inguruko aztertalde zein zabalkunde-ekintzek hizkuntza teknikoaren eredurik eman dezakete, honetaz edo hartaz (eredu bat edo asko behar duen, diogun bidena-bar, azterkizun dago oraindik). Besterik da, ordea, hemen ezpimarratu nahi nukeena: profesional-jendeak (irakaskuntzakoak, administrazioakoak eta abar) darabilkeen euskara tekniko norbanakoak gutxitan jasotzen eta, batez ere, menderatzen duela irakaslearen ezpain-lumetatik edota liburuetatik eginik, osorik, prêt-à-porter eskuratuz. Norberak egin behar du hizkuntzarekin burruka, norberak saiatu behar du tratuan, gai horretaz euskaraz diharduten euskaldunekin. Solaskide euskaldun asko baldin baditu, euskaldun garbiak eta gai horiek euskaraz erabiltzen beren esfortzuz ongi trebatuak, aukera ona izango du hala-kok euskara tekniko onean jarduten ikasteko eta bere ingurukoak hartara bultzatzeko. Bestela nekez lortuko du horrelakorik. Egungo erabilmoduan aurkitu uste diren akats ugariak hiru baldintza horien araberakoak direlakoan nago ni. Konponbideak ere, beraz, hiru baldintza horien argitan bilatu beharko ditugu lehen-lehenik: gai teknikoak beren kontestu propioan normalean euskaraz erabiliko diren jardungune eta harreman-sare egonkorrek behar dira, eskola-mundu itxia gaindituz, horrelako emaitzetara iritsi ahal izateko. Eta horrek, bistan denez, corpus-lanketatik kanpora garamatza ezinbestean.